6205

AGINDUA, 2008ko uztailaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan erakunde laguntzaile gisa jarduteko baimen-eskaria ebazten duena.

2008ko ekainaren 24an, Alberto Goiri Atxaerandio jaunak (NAN: 14551687-R) Bilbao Bizkaia Kutxaren izenean eta ordez (IFZ: G48412720) baimena eskatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan erakunde laguntzaile gisa jarduteko.

Aplikatu beharreko arautegiarekin bat etorrita, Bilbao Bizkaia Kutxak eskariarekin batera honako hauek aurkeztu ditu: erakundeak egindako kobrantzak zentralizatuko lituzkeen bulegoaren helbidea eta banku-gakoa. Aldi berean, bi solaskide izendatu ditu, diru-bilketaren kudeaketan eman beharreko laguntzari buruz jarduteko.

Ondoko zerbitzu hauek emateko erakundeak erabiliko lituzkeen bulegoen zerrenda bat ere aurkeztu du: lankidetza-zerbitzua; Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundien ziurtagiriak, zerga guztiak ordainduta edukitzeari buruzkoak; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan lankidetza-zerbitzua arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Aginduaren 9. artikuluan jasotako baldintzak betetzen direla eta agindu horretan ezarritako baldintzetan lankidetzan jarduteko arazorik ez dagoela ziurtatzen duen berariazko adierazpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan lankidetza-zerbitzua arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Agindua aztertuta, eta kontuan harturik onuragarria dela eskatzaileak diru-bilketaren arloan egin dezakeen ekarpena, erakunde eskatzaileak betetzen ditu lankidetzan jarduteko bete beharreko baldintzak. Hori dela eta, egintza honen bidez, horretarako baimena ematen zaio erakunde horri.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezarri zituen otsailaren 28ko 42/2006 Dekretuak esleitutako ahalmenak erabiliz, honako hau

EBATZI DU:

Bilbao Bizkaia Kutxari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan erakunde laguntzaile gisa jarduteko.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du. Haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke egintza hau eman duen organoari; horretarako epea

6205

ORDEN de 30 de julio de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que resuelve sobre solicitud de autorización para actuar como entidad colaboradora en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco.

D. Alberto Goiri Atxaerandio, DNI: 14551687-R presento en nombre y representación de Bilbao Bizkaia Kutxa, CIF: G48412720, el día 24 de junio de 2008, solicitud de autorización para actuar como entidad colaboradora en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco.

Bilbao Bizkaia Kutxa, de acuerdo con la normativa de aplicación, aporta, con la solicitud, dirección y clave bancaria de la oficina en la que centralizarían los cobros realizados por la entidad y designa tres interlocutores con los que tratar todo lo referente a la colaboración en la gestión recaudatoria.

Asimismo aporta relación de oficinas con las que la entidad prestaría el servicio de colaboración, certificaciones de la Tesorería General de la Seguridad Social y la Diputación Foral de Bizkaia de encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, así como declaración expresa de cumplir los requisitos establecidos en el artículo 9 de la Orden de 11 de abril de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, reguladora del servicio de colaboración en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco, y de estar en disposición de prestar el servicio de colaboración en las condiciones establecidas en la misma.

Examinada la Orden de 11 de abril de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, reguladora del servicio de colaboración en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco y teniendo en cuenta que la contribución del solicitante al servicio de colaboración es positiva para la recaudación, resulta que el mismo cumple los requisitos para actuar como entidad colaboradora, por lo que procede autorizar a la misma por medio del presente acto.

En su virtud, la Consejera de Hacienda y Administración Pública en uso de la competencia que tiene atribuida por Decreto 42/2006, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública,

DISPONE:

Autorizar a Bilbao Bizkaia Kutxa para actuar como entidad colaboradora en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco.

La presente Orden agota la vía administrativa. Contra ella cabe interponer potestativamente recurso de reposición ante el órgano que dicta el presente acto en

hilabetekoa izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan aurreikusitakoari jarraituz. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 30a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

el plazo de un mes, de acuerdo con lo previsto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o bien recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, contado desde el día siguiente de la publicación, conforme a lo dispuesto en el artículo 10.1.a) en relación con el 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de julio de 2008.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.